BESTELAKO XEDAPENAK

KULTURA SAILA

504

EBAZPENA, 2012ko urtarrilaren 9koa, HABEren zuzendari nagusiarena, 2011. urtean euskaltegien eta euskararen autoikaskuntzarako zentroen Erregistroan inskribatutako alta-inskripzioak eta bestelako oharpenak argitara emateko dena.

Euskaltegien eta euskararen autoikaskuntzarako zentroen Erregistroa arautzen duen 2003ko abuztuaren 6ko Kulturako sailburuaren Aginduaren 2. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, eta HABEren arau organikoak onartzen dituen otsailaren 13ko 34/1996 Dekretuak ematen dizkidan eskumenez, honako hau

EBAZTEN DUT:

2011. urtean euskaltegien eta euskararen autoikaskuntzarako zentroen Erregistroan jasotako oharpenen zerrendak argitara ematea. Zerrendak ebazpen honen I. eta II. eranskinetan daude.

Donostia-San Sebastián, 2012ko urtarrilaren 9a.

HABEren zuzendari nagusia,
JOSEBA IÑAKI URIBE BURGOA.

I. ERANSKINA

Titularitate-aldaketa izan duten zentroen zerrenda

Izena	Erreg.zenb.	Titular berria	Ebazpenaren data
Mondragon Lingua Gasteiz zentroa	803	Mondragon Lingua Kooperatiba Elkartea	2011-03-28
Mondragon Lingua Donostia zentroa	804	Mondragon Lingua Kooperatiba Elkartea	2011-03-28

II. ERANSKINA

Helbide aldaketa izan duten zentroen zerrenda

Izena	Erreg.zenb.	Helbide berria	Ebazpenaren data
Bergarako udal euskaltegia	19	Irizar jauregia - Barrenkalea, 33 20570 Bergara	2011-03-28
Durangoko udal euskaltegia	245	Saibi kalea, 10 48200 Durango	2011-10-13
Labayru Ikastegia euskaltegia	66	Colon de Larreategi, 14-2. 48001 Bilbo	2011-12-20